



ORIOKUDALA

Euskaraz  
bizi-bizi

## Epaimahaiaren agiria

---

EUSKARAZ GAZTE 24. literatur lehiaketaren epaimahaia 2017ko azaroaren 29an elkartu zen Orioko kultur etxean. Epaimahaia honako hauek osatu dute: Miriam Garcia, Karkara aldizkariaren izenean; Eli Lasa, Aiako Udaleko kultur teknikariak; eta Jabier Zabaleta, Orioko Udaleko Euskara Zerbitzuko teknikariak.

Epaimahaiak aurtengo lanen batez besteko kalitatea nabarmendu nahi du, hasteko. Karkara aldizkariaren hurrengo zenbakian publikatuko dira lan sarituak eta orduan ikusi ahal izango duzue benetan lan onak direla aurten saritu ditugunak. Zorionak, beraz, parte hartu duzuen guztioi eta segi horretan, zuenetik ematen guztion gozamenerako.

Lehiaketara aurkeztutako lanak banan-banan aztertu ditu epaimahaiak eta, iritziak trukatu eta eztabaidatu ondoren, honako sariak ematea erabaki du:

### Ipuin saila

«**Klarinete jotzailea**» izeneko lanak irabazi du ipuin alorreko accesita. Idaztea gustatzen zaion neska baten istorioa kontatzen du: idaztearen plazera, egiten duen lana onartua izateko nahia, ilusioa, beldurra... Elementu horiek guztiak agertzen dira ipuinean eta, horiekin batera, klarinete jotzaile bat, instrumentuarekin nahi eta ezinean dabilena. Bi elementuak ederki uztartzen ditu egileak eta, horiek baliatuz, ipuin labur eta polita idatzi du. Poztu gara, iaz aurkeztu zelako egilea aurreneko aldiz lehiaketa honetara eta aurten berriro eman duelako pausoa. Beretzat dira 100 euroko saria eta oroitagiria. Datorrela jasotzera Ane Etxabe.

Ipuin alorreko hirugarren saria, 150 euro eta oroitagiria, «**Ofizialki uda da**» ipuinari eman diogu. Ipuinak ederki kontatzen du gaur egungo gazte askorena izan daitekeen egunerokoa: atzerrian bizitzen, pisu konpartitu batean, munduko toki askotako jendearekin



ORIOKOUNDALA

Euskaraz  
bizi-bizi

harremanetan... Eta, horrekin batera, giza-harremanak, gazteen erreferentzia musikalak eta kulturalak, teknologia berriak... Oso ondo idatzita dago eta ederki jasotzen ditu neska protagonistaren eguneroko gorabeherak eta barruko kezkek. Egileak dioen bezala, 'modu aleatorioa' ON jarrita idatzita dago, gai batetik bestera saltoak eginez; baina emaitza oso ona da. Egilea Libe Larrarte da eta idazten segi dezan animatu nahi dugu, erakutsi du-eta ondo egiten duela. Datorrela saria jasotzera.

Mikel Iruretagoienak irabazi du ipuin alorreko bigarren saria, 200 euro eta oroitagiria, «**Lotarako ipuina**» lanarekin. Ezagutzen dugu Mikel, bertsolari gisa; baina aurreneko aldia da ipuina aurkezten duela lehiaketara eta sorpresa atsegina izan da: oso elementu sinpleak erabiliz (aita gauean, semeari ipuina kontatzen), oso kontakizun polita osatu du, estilo biziz eta grazia handiarekin. Ez dakigu zenbat duen ipuinak benetakotik; baina erraz imajinatzen dugu Mikel lan horretan. Etorri Mikel, mesedez, saria jasotzera.

Aurtengo lehendabiziko saria, 300 euro eta oroitagiria, «**Anarriko Dama**» izeneko ipuinak irabazi du. Ipuin luzea da eta, kasu honetan, eskertzen da luzea izatea, oso gustura irakurtzen da-eta. Edozeinek gozatzeko moduko ipuin ederra da; baina inguru hauetan bizi garenontzat (Orio, Zarautz, Aia...) bereziki da gozagarria, gertuko erreferentziaz beteta dagoelako: lehengo istorioak, toki-izen ezagunen jokoak, gure etxeak izan daitezkeen pertsonaiak... eta kostalde honetako kutsua duen euskara landua. Lapitza zorrozten segitzen du egileak, 60 urteen bueltan ere, eta zoriontzekoa da hori. Ipuinarekin 300 euroko saria irabazi du, eta oroitagiria. Datorrela jasotzera: Iñaki Iturain.



ORIOKOUNDALA



## Olerki saila

Epaimahaiak «**Lapikoaren aurrean**» izeneko olerkiari eman dio olerki saileko accesita. Olerkiaren eta bertsoaren arteko mugan dagoen lana aurkeztu du egileak eta bertan kontatzen du nola biltzen diren sukaldean ama eta haurra, jolasa, janaria eta goxotasuna konpartituz, arbasoengandik datorren kateari segida emanez, testigantza zaharrak biziberrituz. Olerki honekin 100 euroko saria eta oroitagiria irabazi ditu Leire Zinkunegik.

Olerki eta bertsoetako hirugarren saria, 150 euro eta oroitagiria, «**Mendian gora korrika**» izeneko bertso-sortak irabazi du. Egileak gaur egun modan dagoen sukar ulertezin bati egiten dizkio bertsoak: mendian korrika ibiltzeko piztu den grina horri. Zortzi bertso sorko sorta bi erditan banatuta dago: lehenbizikoan oraingo sukar horren azalpena egiten du eta azken lau bertsoetan, berriz, mendiaz gozatzeko beste bide bat proposatzen du, gu bezalako mortal apalon neurriagokoa. Ikusten duzuenez, ezin adosago nago bertsoen mezuarekin. Zer nezesidade! Datorrela saria jasotzera Iñaki Iturain.

200 euroko bigarren saria irabazi du «**Telezirkoa**» izeneko bertso-sortak eta egileak ederki erakutsi du baduela txispa eta ofizioa bertso idatziak jartzeko. Oraingo honetan telebistari begira jarrita osatu ditu bertso umoretsuak, biziak eta txinpartadunak. Banan-banan aipatzen ditu telebistako faunaren pertsonaia asko eta badu bakoitzarentzat zerbait. Irribarrez irakurri edo entzuteko bertsoak, konprobatuko duzuenez. Gustura entzungo dituzue Garazi Urretabizkaiaren bertso hauek.

Aurtengo lehiaketaren lehen saria, olerki eta bertsoetako sailean, beste bertso-sorta batek irabazi du (aurten bertsoak izan dira aurkeztu diren gehienak). «**40 urte**» du izena zortzi bertso sorko sortak eta bertan egileak 40 urtetako krisiaren erretratu umoretsua egiten du. Grazia handiko bertsoak dira, ondo eginak eta josiak, eta gustura adituko dituzue, bereziki adin horren bueltan zabiltzatenok edo, ni bezala, hortik pasatuta zaudetenok. Bereak dira 300 euro eta oroitagiria. Egilearen izena: Mikel Iruretagoiena.

Orio, 2017ko abenduaren 2a.